

Turistifikazioa Gasteizko Alde Zaharrean

Esku batekin etxebizitzak erosi, bestearekin araudia moldatu

Gasteizko Alde Zaharreko etxebizitzaren turistifikazio ahaleginaren aurpegi publikoak Arabatur elkarte eta bere presidente Pilar Perosanz dira. Baina bada beste pertsona bat, publikoki horrela agertu ez bada ere: Gustavo Antépara Benito. Berak eta Luxury Rental Apartments bere enpresak, Arabatur eta Perosanzekin lotura zuzenak dituzte. Antépara Gasteizko PPko kide garrantzitsua da: zinegotzi izan zen 2016-2019 artean Gasteizko Udalean; eta 2015etik 21 Zabalgunea sozietate publikoko kontseilu administrazioko kidea da PPren ordezkari bezala. Hor hartzen dituzte hirigintzari loturiko erabaki nagusiak Gasteizen. Auzokideen artean kezka eta kontrakotasun handiak sortu dituzte Arabaturren ekimenek. Alde Zaharreko etxebizitzaren turistifikazio saiakeraren atzean dauden zenbait pertsona, enpresa eta interesen inguruan argia egiten saiatu gara.

 KUTXIKOTXOKOTXIKITXUTIK.WORDPRESS.COM / ZIGOR OLABARRIA OLEAGA
 DOS POR DOS

2020ko otsailera arte, arautu gabe egon da Gasteizko Alde Zaharreko etxebizitza partikularrak turismo-rako alokatzeko aukera. Orduan onartu zuen udalak Alde Zaharreko Birgaitze Integraleko Plan Bereziaren (BIPB) hahirugarren modifikazioa, eta horren arabera atari bakoitzeko etxebizitza bakarra bideratu daiteke turismora – lehen solairukoa halaberrez–.

Arau horri, etxebizitza turistikoaren

sektoreko enpresariak Arabatur elkar-teak alegazioa aurkeztu zion 2020ko maiatzaren. Turistifikatzeko aukera edozein etxebizitzari zabaltzea eskatu zuen Arabaturrek, edo, hori onartu ezean, atari osoak turistifikatzeko aukera izatea, etxebizitzaren jabe guztiek horrela nahi izanez gero.

2020ko uztailaren, udalak partzialki onartu zuen Arabaturren eskaria: ez zuen baimendu edozein etxebizitza

turismora bideratu ahal izatea; bai, ordea, atari osoak bideratzeko aukera. Alde Zaharreko elkarte eta auzokide ugari kezka eta haserrea agertu zituzten, erabakiak auzoaren bizitza nabarmen okertu dezakeela iritzita, eta 136 alegazio aurkeztu zituzten 2020ko urrian. Udalaren erantzuna edozein unetan hel daiteke.

ZER DA ARABATUR ETA NORK ZUZENTZEN DU?

Arabatur 2017ko abuztuan sortu zuen, “Arabako turismo-ostatuaren partikularren, jabe txikien eta kudeatzailleen” elkarte bezala, bere estatutuen arabera. Jaiotzatik etxebizitzaren turistifikazioaren aldeko lobby lana egin du: alegazioa aurkeztu, hedabideetan turistifikazioaren aldeko mezua zabaldu, edo Gasteizko Udaleko talde politikoekin batzartu, besteak beste.

2020ko uztailaren elkarriketa egin zion *El Correo* egunkariak Arabaturreko presidente Perosanzi: “Nortzuk zarete? Zein da Arabaturreko bazkideen profila?”, galdetu zion Jorge Barbó kazetariak; “30 bazkide gara, Gasteizko enpresari txikiak, autonomoak, pisu batekin edo birekin. Elkar-tearen barruan ez dago enpresa handirik, ez katearik, ez inbertsio-funtsik”, erantzun zion Perosanzek. Ez dakigu 30 diren Arabaturreko bazkideak, ezta, izatekotan, “pisu bat edo bi” dituzten jabeak diren ere. Ez dugu Arabaturreko bazkideen zerrendarik lortu.

Baina hainbat jabetza-erregistro, merkataritza-erregistro, sozietate-



ARABATUR ELKARTEAK Antepararen enpresa baten helbidea eman zuen etxebizitza turistikoak baimentzeko alegazioa erregistratu zuenean udalean.

erregistro edota webgune ikertu ondoren, errealitatea Arabaturreko buru Perosanzek dioenaren bestelakoa dela ziurtatu dezakegu. Luxury Rental Apartments enpresak “bat edo bi” ez, gutxienez bederatzi etxebizitza kudeatzen ditu hirian, horietariko zazpi Alde Zaharrean –enpresaren, jabearen edo enpresari lotutako beste pertsona batzuen izenean–. Luxury enpresaren jabea Gustavo Antépara Benito da, 2016-2019 tartean PPko zinegotzi izan zen Gasteizko Udalean, eta 2015etik Gasteizko hirigintza politika gidatzen duen 21 Zabalgunea sozietate publikoko administrazio kontseiluko kidea da alderdiak izendatuta. Arabatur eta

Luxury enpresa lotzen dituzte hainbat datuk, eta Antépara eta Perosanzen arteko harremana urrutitik dator. Goazen pausoz pauso.

ALDE ZAHARRA EROSI ETA TURISTIFIKATU

Luxury Rental Apartments 2020ko irailean sortu zuten, baina ez hutsetik, beste enpresa baten izen eta estatutuen aldaketaren ondorioz baizik.

2007an Grupo Editorial y Comunicaciones Enea sortu zen (GECE). Ordura arte Grupo Enea Editorial S.C. zuen izena, eta Pilar Perosanz zuzendari komertzial izan zen bertan, infojobs.net atariko bere perfil profesio-

Errealitatea
Arabaturreko buru
Perosanzek dioenaren
bestelakoa dela
ziurtatu dezakegu

nalean irakur daitekeenez. GECEn administratzaile bakarra Antépara zen, eta enpresaren lan esparrua hedabideen publizitate edizioari loturikoa zen ofizialki. 2016ko azaroan Antépa-

ra Gasteizko Udaleko zinegotzi izendatu zuten Javier Marotoren ordezkotza bezala. Bere ondasunen aitortzearen, GECEren jabe bakarra zela deklaratu zuen. 2019an legegintzaldia amaitzean egindako aitortpen berrian, aldiz, GECEren %50aren jabe zela deklaratu zuen. Iturri juridikoek azaldu digutenez aldaketa hori merkataritza-erregistroan jasota egon beharko litzateke, eta erregistroan ez dago horrelako informazioirik.

2016ko uztailean Eusko Legebiltzarak Turismoaren Legea onartu zuen, besteren artean erabilera turistiko etxebizitzaren eta erabilera turistiko logelaren erregularizazioa jorratzen duena. Erregularizazio horren zehaztapena araudi espezifiko baten garapeneren esperoan geratu bazen ere, lege horren onarpenarekin negozio mota horretan jardun nahi zuten enpresa eta pertsonen mugimenduek gora egin zuten nabarmen. Baita Antépararen enpresarena ere, nahiz eta, printzipioz, deklaraturako jarduerak motak –publizitatea eta edizioa– ez izan zerikusi handirik etxebizitza turistikoekin.

2017ko otsaila eta urria bitartean, GECEk lau etxebizitzari alta eman zien Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza turistikoaren erregistroan –horietariko bi Alde Zaharrekoak–: Zerkabarren kalean, San Prudentzio kalean, Arkupeko

Pasealekuan, eta Aiztogile kalean. Arkupeko Pasealekuko etxebizitza Pilar Perosanzek erregistratu zuen jabetzan data horien artean, 2017ko ekainean. Eta abuztuaren sortu zen Arabatur elkar-
tea, Perosanz zuela presidente.

2020ko maiatzean Arabaturrek bere alegazioa erregistratu zuenean, Antépararen enpresaren helbidea eman zuen

2018ko maiatzaren eta 2019ko martxoaren artean, GECEk eta Antéparak Alde Zaharrean bost etxebizitza eta hiru trasteleku erosi zituzten: GECEk Pintore kaleko atari bereko lau etxebizitza eta bi ganbara, atari guztien jabe eginez; Gustavo Antéparak Aiztogile kaleko atari bereko bigarren solairua eta trasteleku bat (2017ko urrian Jaurlaritzaren erregistroan alta eman zuen etxebizitzaren atarikoak, aldi berean).

ARABATURREN ETA ANTÉPARAREN INTERES GURUTZATUAK

Mugimendu eta erosketa horien guztien ostean, 2020ko otsailean, Antépararen interesak arriskuan gelditu ziren: Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak (Udal Gobernua osatzen duten EAJ eta PSEko ordezkariak osatutakoa) erabaki zuen erabilera turistikoaren pisuak lehen solairuetan soilik baimentzea.

Bi hilabete geroago aurkeztu zuen Arabaturrek erabaki horren aurkako alegazioa, eta bere mamiak Antépararen interesekin bat egiten du guztiz. Bai alegazioaren eskaera nagusiak, hau da edozein etxebizitza turismora bideratzeko baimena ematearena. Baina baita ere hori onartu ezean atari osoak turistifikatzeko aukera emateko eskaerak: Pintore kaleko atari bateko etxebizitza guztien jabe da Antépara, eta Aiztogile kaleko atari baten hiru etxebizitzetatik bakarra falta du. Edo agian hori ere badu: orain gutxi arte ostatu turistikoentzako Gites webgune ospetsuan Aiztogile kaleko atari horretan hiru apartamentu eskaintzen baitziren alokairuan “Luxury Cuchilleria” izenarekin. Horrek adieraziko luke enpresak atari osoa kontrolpean duela.

Arabatur-Perosanz eta GECE-Antépararen arteko loturei dagokienez, hainbat datu daude. Perosanz Grupo Enea Editore

2016 uztaila

Eusko Jaurlaritzak Turismoaren legea (13/2016) onartu zuen, besteak beste erabilera turistiko etxebizitzaren (ETE) eta erabilera turistiko logelaren (ETL) erregularizazioa jorratzen zuena. Mugimenduak hasi ziren sektorean negozioa egin nahi dutenen artean.

2018 maiatza-uztaila

GECEk lau etxebizitza eta bi ganbara erosi zituen Alde Zaharrean.

2019 martxoa

Gustavo Anteparak etxebizitza bat eta trasteleku bat erosi zituen Alde Zaharrean.

2017 otsaila-urria


Gustavo Antépararen Grupo Editorial y Comunicaciones Enea (GECE) sozietateak lau etxebizitza inskribatu zituen Jaurlaritzaren etxebizitza turistikoaren erregistroan, horietariko bi Alde Zaharrean. Uztailean, etxebizitza horietako bat Pilar Perosanzek jabetza bezala erregistratzen dute.

2018 abuztua

Arabatur elkar-
tea sortu zen “Arabatur turismo-ostatu partikularren, jabe txikien eta kudeatzaileen elkar-
tea”. Pilar Perosanz da presidentea.

2020 otsaila

Gasteizko Udalak erabaki zuen erabilera turistikoaren lehen solairuetako etxebizitzei soilik eman ahal izango zaiela.



rial S.C enpresako zuzendari komertziala izan zen enpresak GECE izena hartu aurretik. Luxury enpresak alokairurako eskaintzen dituen etxe turistikoetako bat (Arkupeko Pasealekukoa) Pilar Perosanz jabetzakoa da 2017ko ekainetik. 2017ko urrian etxebizitza turistiko bat altan eman zuen Eneak Jaurilaritzaren erregistroan: kontakturako eman zuen posta elektronikoa GECERena zen, eta telefono zenbakia, aldiz, Pilar Perosanze-

na. 2020ko maiatzean Arabaturrek bere alegazioa aurkeztu zuenean, emandako helbidea GECERen egoitzarena da.

Arabaturreko presidente Pilar Perosanzekin jarri gara kontaktuan telefonoz maiatzaren 28ko ostiralean, informazio horien guztien inguruan galdetu eta bere esanak jaso asmoz. "Alde Zaharreko etxebizitza turistikoaren araudiaren inguruko erreportaje baterako" galdera batzuk egiteko nahia adieraztean galde-

GITES WEBGUNEAN erregistratu gabeko etxebizitzak jarri ditu alokairuan Luxury Rental Apartments enpresak. Lehen solairukoak ez direnak tartean, araudiak hori debekatzen badu ere. Arabaturren gomendiozko "zigilua" zuten.

rak posta elektronikora bidaltzea eskatu du, "hobeto" erantzuteko. "Nik eza-gutzen ditudan galderak badira ondo, bestela elkarteko abokatuari galdetu beharko diot", esan du, aurretik galderen edukiaren inguruko inongo zehaztapenik izan edo eskatu gabe. Erreportajea ixteko orduan Perosanzek ez dio posta elektronikoari erantzun.

'ENEA'-TIK 'LUXURY'-RA

Gustavo Antéparak etxebizitza turistikoaren negozioan sakontzen jarraitu du udalak hasiera batean bere interesen aurka egin bazuen ere.

Iazko irailean aldaketa esanguratsuak egin zituen enpresan: batetik, izena aldatu zion, Grupo Editorial y Comunicaciones Eneatik Luxury Rental Apartments-era; bestetik, xede soziala aldatu egin zuen sozietateak: "Ostalaritzako jarduera, turismorako zerbitzuak eta, bereziki, etxebizitza edota apartamentu turistikoaren ustiapena eta jarduerara osagarriak". Administrazioaile bakkarra pertsona berberak jarraitu zuen izaten: Gustavo Antépara Benito.

2020 maiatza

Arabaturrek alegazioa aurkeztu zuen udalaren erabakiaren aurka (eman zuen Arabaturren helbidea, GECERen berbera da).

2020 iraila

GECERen izena eta xede soziala aldatu zituzten: Luxury Rental Apartments da sozietate berria, eta bere lan arloa, "Ostalaritzako jarduera, turismorako zerbitzuak eta, bereziki, etxebizitza edota apartamentu turistikoaren ustiapena eta jarduerara osagarriak".

Udalak edozein unetan eman diezaieke erantzuna auzokideen alegazioei

Hartutako erabakia osoko bilkura batean onartu beharko litzateke ondoren.

2020 uztaila

Udalak partzialki onartu zuen Arabaturren alegazioa.

2020 urria

Auzokideek 136 alegazio aurkeztu zituzten udalak Arabaturren alegazioa onartzeko hartutako erabakiaren aurka.

* **Gustavo Antépara Benito:** Gasteizko hirigintza arloko erabakigune nagusia den Zabalgune 21 sozietate publikoko administrazio kontseiluko kidea 2015etik, PPren ordezkari bezala; PPren zinegotzia Gasteizko Udalean 2016-2019 tartean, Javier Marotoren ordezkari bezala; Luxury enpresaren jabea (lehenago Grupo Editorial y Comunicaciones Enea (GECE)).

* **Pilar Perosanz Lozano:** Arabatur elkarteko presidentea, Eneako langile izandakoa.

* **Arabatur eta Perosanz Antépara eta Luxuriyren** lotzen dituzten datuak ugariak dira.

Are gehiago: Luxuryren webgunean, orain arte aletu ditugun etxebizitzetaz gain beste bi behintzat agertzen dira, Zapataile eta Hedagile kaleetan. Etxebizitza horiek zein ataritan dauden ez du zehazten webguneak, eta estekak ez daude aktibo. Erregistroan alta emateko aukerarik ez delako izan, agian, lizentziak eta tramitazioak bertan behera uztea erabaki baitzuen udalak 2020ko otsailean, etxebizitza turistikoentzako araudi berria behin betiko onartu arte. Bere webgunean ez, baina beste batean gutxienez eskaini du erregistroa gabeko pisurik, lehenago aipatutako Gitesekoan kasu. Orain dela gutxi arte Aiztogile kalean atari bereko hiru apartamentu eskaintzen zituen webguneak. Arabaturren gomendiozko “zigiluarekin”, gainera. Ezin dugu ziurtatu Luxuryk etxebizitza gehiago eskaintzen ez duenik beste inon, ezta enpresak edo Antéparak jabetza gehiago ez dutenik ere. Batetik, Gasteizko datuak hainbat jabetza-erregistrotan zatituta daude, eta erreportaje honetarako datuak Alde Zaharra hartzen duen erregistroan bilatzera mugatu gara. Bestetik, normalean horrela egiten bada ere, ez da derrigorrezkoa jabetzen alta ematea jabetza-erregistroan.

SOZIEKATE PRIBATUAK ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK

Azken urteotan beraz, Alde Zaharrean turismora bideratzeko etxebizitzak pilatu ditu Luxury Rental Apartments enpresak, eta etxebizitza turistikoaren araudia moldatzen saiatu da Arabatur, turistifikazioa erraztu nahian.

Urte berdinetan Antépara PPko zinegotzi izan da Gasteizko Udalean 2016 eta 2019 artean (2019ko hauteskundeetan alderdiaren zerrendan joan zen baina ez zen hautatua izan). Eta, batez ere, Miguel Garnicarekin batera PPren bi ordezkarietako bat da Gasteizko hirigintza politika zuzentzen duen 21 Zabalgunea sozietate publikoan 2015az geroztik. 21 Zabalgunek, besteak beste, Gasteizko eta Alde Zaharreko lurzoru politikaz, etxebizitzaz eta etxebizitzaren zaharberritze politikaz erabakitzen du. Are gehiago. Udalaren Hirigintza Kudeaketako Zuzendaritzak Arabaturren alegazioa partzialki onartzea proposatu zuen hain zuzen ere sozietatearen aldeko iritzian oinarrituta: “Arabaturren alegazioari dagokionez, udaleko hirigintza-sozietatearekin [Zabalgune 21] kontrastatu da (...) eta ondo funtsatutzat eta onargarri-



ÁLAVA-VELASCO JAUREGIA.

Talde aleman batek 33 apartamentu turistiko ireki nahi ditu abandonatutako eraikinean, *El Correo* egunkariak argitaratu zuenez.

tzat jotzen da erabilera turistikoko etxebizitzak eraikin osoetan baimentzeko aukera”.

INFORMAZIO URRIA ETA DESITXURATUA

Antéparak eta Perosanzen beren interesak defendatzen dituzte. Baina hori egiteko “pisu bat edo bi” dituzten jabeen ordezkari bezala aurkeztu dira, Antéparak gutxienez bederatzi etxe dituen jabetzan. Hori gutxi balitz, Antépara 21 Zabalgunearen administrazio kontseio-

luko kide da PPren ordezkari bezala. Kargu hori bereziki nabarmentzekoa da, hirigintza politikak erabakitzeke hiriko marko nagusia baita sozietate publikoa. Alde Zaharreko etxebizitzaren zaharberritze politikak erabaki ditu 21 Zabalguneak azken hamarkadetan. Auzoko elkarteek askotan kritikatu dituzte politika horiek, bestek beste zaharberritzerako diru-laguntzak soilik lan horiek ordaintzeko diru nahikoa dutenentzako bideratu dituztelako, eta ez, hain zuzen ere, diru eskasiagatik egoera oke-

rrenean dauden etxeetan bizi diren auzokideentzat. Horrek errazten du auzokide txirotuek auzotik alde egin behar izatea, eta dirua duten pertsonak etxebizitzak merkeago erosi ahal izatea. Adibidez, ondoren turismora bideratzeko, beste hiri batzuetan ikusten denez. Eta PPK – ere – politika horiek babestu ditu 21 Zabalgunean.

Antépara eta Perosanzen mugimenduek Gasteizko Alde Zaharrean etorkizuna baldintza dezakete. Beraiek hartu dute auzoaren turistifikazioaren bandera, eta argudio horiek ontzat emanda onartu zuen udalak partzialki Arabaturren alegazioa. Aldiz, auzoari eragiten dioten erabakietan erakundeek auzokideei ematen dieten erabakimen eskasa hamarkadetan errepikatzen den salaketa da Gasteizko Alde Zaharrean. Etxebizitzaren turistifikazioaren aferan ere informazioa eta eztabaida urriak izan dira. Eta gainera, ikusten dugunez, batzuetan desitxuratua egon da.

Horren guztiaren aurrean, etxebizitzaren turistifikazioaren aurka azaldu eta antolatu da Alde Zaharrean jende ugari azken hilabeteetan. Zergatik?

Antépara eta Perosanzen mugimenduek Gasteizko Alde Zaharrean etorkizuna baldintza dezakete

TURISTIFIKAZIOAREN AJEAK

Esperientziak erakutsi du jada zer gertatzen den etxebizitzaren turistifikazioari muga estuak jartzen ez zaizkion lekuetan. Alokairu tradizionalera bideratutako etxebizitzaren jabeek turistentzako alokairura pasatzeko joera dute, edo arloko enpresa handiei eta inbertitzaileei saltzekoa, Alde Zaharrean gertatzen ari den bezala. Batzuetan norberaren interesagatik, besteei tan presioak tarteko. Transformazio horiek ondorio larriak dituzte

Gasteizko Alde Zaharrean moduko auzoetan.

Alde batetik, alokairurako etxebizitzaren kopurua murriztu egiten da, eta prezioa igo. Non eta diru-sarrera urriengatik alokairuan bizi behar duen auzokide gehien (% 23) duen hiriko auzoan. Gainera, auzokideen bizileku diren etxebizitzak horiek, auzoan geratzen ez diren turistez beteko lirateke, sare komunitarioak eta auzo-dinamikak arrisku larrian jarritik. Turistifikazioaren ondorioei buruzko analisi sakonagoa nahi duenak *Etxebizitzak turistifikatu, Alde Zaharrak ez birgaitzeko* erreportajera jo dezake (ARGIA, 2698. zenbakia).

TURISTIFIKAZIOA ARRISKU; AUZOTASUNA BERME

Etxebizitzaren erabilera turistikoaren inguruko politikek eztabaida sakona eskatzen dute: jendarte eta auzo erduez, turistifikazioaren ondorioez, erabakiak hartzeko moduez, erabakigunez. Eztabaida hori ezinbestekoa gaur Gasteizko Alde Zaharrean, jakinik nola ari den etxebizitzaren turistifikazioa sustatzen. Eta hori Arabatur elkarteaz eta Luxury Rental Apartments enpresaz haratago doa, gehiago ere etorriko dira horien atzetik eta ondotik: *El Correo* egunkariak azaleko lerroburu nagusia eman zion maiatzaren 15ean albiste honi: “Taldea aleman batek 33 apartamentu turistiko proiektatu ditu Álava-Velasco jauregian”. Hamarkadak abandonatuta daramatzan Alde Zaharreko (beste) jauregi bat da, Gasteizko mugimendu feministak 2018ko abenduan okupatu eta Udaltzaingoak hiru hilabete geroago hustu zuena.

Ez da berandu aldatzeko, erabakiak udalaren esku jarraitzen baitu. Oraindik ez die erantzunik eman eraikin osoen turistifikazioa baimentzeko erabakiaren aurka auzokideek aurkeztutako 136 alegazioei. Eta oraindik ere araudi berria osoko bilkura batean berretsi beharra dago. Denbora eta aukerak badira auzokideen eskaerei erantzuteko; borondate politikorik orain arte ez. Dena dela, udalean bestelako “borondateak” sortzeko bermerik onena, hamarkadetan bezala, auzokideak eta mugimendu herriarrak izaten jarraitzen dute. ●

21 Zabalgunearen ustezko aldeko iritzia, turistifikazioari baietza emateko oinarria

Eraikin osoen turistifikatzea baimentzeko udala, besteak beste, Hirigintza Kudeaketako Zuzendaritzaren aldeko txostenean oinarritzen da: “Arabaturren alegazioa partzialki onartzea proposatzen du, eraikin osoetako etxebizitza turistikoak baimenduz”, dio 2020ko uztaileko txostenak. Txostenak Alfredo Pirisen sinadura darama, hamarkadetan Gasteizko hirigintzari loturiko kargu publiko garrantzitsuenetan aritu dena EAJk, PSEk zein PPK zuzendutako udal gobernuetan –besteak beste, 21 Zabalgunearen gerente izan zen 2000 eta 2013 urteen artean–. Eta txosten hori, besteak beste, 21 Zabalgunearen aldeko iritzian oinarritzen da: “Arabaturren alegazioari dagokionez, udaleko hirigintza-sozietatearekin [21 Zabalgunea] kontrastatu da (...) eta ondo funtsatutzat eta onargarritzat jotzen da erabilera turistikoko etxebizitzak eraikin osoetan baimentzeko aukera”.

Ustezko iritzian, esan beharko genuke. Jakinik Luxury Rental Apartments enpresaren jabe Gustavo Antépara 21 Zabalgunearen administrazio kontseiluko kide dela, hirigintza sozietateko kontseiluaren eta juntaren bileren aktak aztertutako duguna, jakin nahian 21 Zabalgunearen aldeko iritzia eman zuenean Antéparak boza eman zuen ala ez –inhibitu egin beharko zuelakoan, interesen arteko gatazka egoteagatik–. Auziaren inguruko bozketarik edo aipamenik ez dago aktetan. Azkenean, EH Bilduk udalaren erabakiari aurkeztutako alegazioan aurkitu dugu erantzuna. “[21 Zabalgunearen] Txosten hori ez dago espedientean, abuztuaren 6an San Martingo bulegoetan egin genuen espediente-ikustaldian egiaztatu ahal izan dugunez”. Txostenagatik galdetu zuen EH Bilduk, eta 21 Zabalgunearen egin zena kontraste informal bat izan zela erantzun zioten: “Jakinarazi zitzaigun, ahozko kontsulta bat egin zitzaizola 21 Zabalguneari”.

EH Bilduko iturriek baieztatu digute Alfredo Pirisi egin ziotela galdera, eta horrek adierazi ziela telefono bidezko kontsulta informala izan zela egindakoa –norekin, ez dakigu–. Horrek ez du ekidin, ordea, 21 Zabalgunearen “baiezkoa” iritzi kualifikatu bezala aurkezteko etxebizitzaren turistifikazioari baimena emateko.